

## TicketBAIKontsultak: TicketBAIra bidalitako fakturen egoera kontsultatzeko REST zerbitzua

Zerbitzu honen bidez, TicketBAI softwareek sistemara bidali dituzten fakturen egoera kontsultatu ahal izango dute, bai eta finkatze sistemaren bidez prozesatu ondoren zer egoeratan dauden ere. Jaulkitzaile baten TicketBAIn erregistratutako azken faktura zein den kontsultatzeko aukera ere badu.

Zerbitzuak bi emaitza mota emango ditu, eta, horretarako, bi URL desberdin izango ditu.

- Kontsulta iragazkietan ezarritako irizpideak betetzen dituzten eta TicketBAI sistemara bidali diren fakturei buruzko informazioa, orrialdeka.
  - Probetan:  
<https://pruebas-ticketbai.araba.eus/TicketBAIConsultas/v1/facturaspaginadas/>
- TicketBAIra bidalitako azken fakturari buruzko informazioa.
  - Probetan:  
<https://pruebas-ticketbai.araba.eus/TicketBAIConsultas/v1/ultimafabrica/>

#### Zerbitzuaren ezaugarri orokorrak:

- Zerbitzu honetan egindako kontsultak identifikatzeko, dagokion ziurtagiria erabili behar da (igorlearen ziurtagiria).
  - Eskaera erakunde jaulkitzailearen ziurtagiria erabiliz egiten bada (jaulkitzailearen IFZa da igorlearen ziurtagiria), jaulkitzaile horrek bidalitako faktura guztien zerrenda jasoko da.
  - Eskaera 2D mailako ordezkari baten identitatea erabiliz egiten bada, igorlearen ziurtagiri beraren bidez bidalitako fakturei buruzko informazioa baino ez da jasoko.
  - Gailu ziurtagiri bat erabiltzen bada kontsulta egiteko, gailu horren bidez TicketBAIra bidali diren fakturak soilik kontsultatu ahal izango dira.
- Alta zerbitzuari emandako informazioa erakutsiko da, jatorrian sortutakoarekin erkatu, egiaztatu eta alderatu ahal izateko.
- Zerbitzuak eskaera XML bat du sarrera gisa, eta hartan adieraziko dira lortu nahi den informazioaren iragazkiak edo baldintzak.
  - Eskaera XMLak ez du sinatuta egon behar.
  - Zer fakturari buruzko informazioa lortu nahi den adieraz daiteke, erabilgarri dauden iragazkiak erabiliz.
- Erantzunak goiburu bat izango du, erantzunaren laburpenarekin, eta hartan hauek adieraziko dira, besteak beste: erregistro kopurua, uneko orrialdea eta erregistro gehigarririk dagoen.
  - Informazioa orrialdeka emango da, informazioa modu erabilgarrian berreskuratu ahal izateko.
  - Eskatzaileak jaso nahi dituen orri adina dei egin beharko ditu zerbitzura.
  - Informazioa egunero eguneratzen da kontsultarako datu basean, eta, beraz, emandako informazioa kontsulta egiten ari den egunaren bezperari dagokiona da.
- Azken fakturako zerbitzuak ("ultimafabrica") sistemak onartutako azken fakturaren informazioa baino ez du emango; beraz, emaitzak faktura bakar bati buruzko informazioa izango du.
- Ezetsitako bidalketak ez dira kontuan hartuko zerbitzu honetan.

#### Eskaera XMLa:

Informazioa eskatzeko bidali beharreko XMLak honako eremu hauek izan ditzake (kontsultatu xehetasunak "kontsulta v1-2-2.xsd" fitxategian):

#### CabeceraConsultaType (derrigorrezko blokea)

- IDVersion 1.0
- Ejercicio (urtea)
- Periodo (Urtekoa: OA. Hiruhilekoko: 1T, 2T, 3T, 4T. Hilekoa: 01 02 03 04 05 06 07 08 09 10 11 12)
- NifEmisor

#### FiltroConsultaType (informazioa iragazteko hautazko eremuak)

- CabeceraFactura
  - SerieFactura
  - NumFactura
  - FechaHoraExpedicionFactura (noiztik-noiz arte)
  - FechaOperacionFactura (noiztik-noiz arte)
  - FechaHoraPresentacionFactura (noiztik-noiz arte)
- EstadoEnvio (2 onartuta, erroreekin; 3 onartuta, errorerik gabe)
- EstadoRegistro (C zuzena, A baliogabetua, S ordeztua, Z zuzendua)
- MostrarErrores (Bai/Ez)
- NumPaginaConsulta (Zenbaki osoa >= 1)

Azken fakturaren XML kontsultara sartzeko, egitura honi jarraitu behar zaio (ikus "kontsultaUltimaFactura v1-2-2.xsd"):

#### Cabecera:

- IdVersion
- NifEmisor

#### Erantzun XMLa:

Kontsulta zerbitzuak eskaerei erantzungo die (bai fakturak kontsultatzeko eskaerei, bai bidalitako azken fakturari buruzkoei), eta XML bat bidaliko du, honako egitura honekin (ikus "respuesta\_kontsultaV1-2-2.xsd" fitxategia):

#### Cabecera

- Ejercicio
- Periodo
- EmisorCabecera
  - NIF
  - ApellidosNombreRazonSocial

#### ResultadoConsulta:

- FechaHoraConsulta
- NumPaginaConsulta
- ExistenRegistros
- Paginacion

- NumPaginasTotales
- ExistenMasRegistro (Bai/Ez)
- NumRegistrosTotales
- Error:
  - Descripcion

#### FacturasEmitidas:

- DatosFactura
  - CabeceraFactura
    - SerieFactura
    - NumFactura
    - FechaHoraExpedicionFactura
    - FechaOperacionFactura
    - FacturaSimplificada
    - FacturaEmitidaSustitucionSimplificada
  - Sujetos
  - ImporteTotalFactura
  - RetencionSoportada
  - IdentificadorTBAI
  - SignatureValue
  - FacturasRectificadasSustituidas
  - FacturaRectificativa
  - Claves
- TipoDesglose
  - DesgloseFactura
    - Sujeta
    - NoSujeta
  - DesgloseTipoOperacion
    - PrestacionServicios
      - Sujeta
      - NoSujeta
    - Entrega
      - Sujeta
      - NoSujeta
- DatosPresentacion
  - NIFPresentadorUltModificacion
  - FechaHoraPresentacionUltModificacion
  - ModoPresentacionUltModificacion
- SituacionRegistro
  - Estado
  - ResultadosValidacion
    - CodigosErrorTicketBAI